



119. ALDIZKARIA - 2002ko urriaren 2a

III. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA A N T S O A I N

S-D sektoreko hirigintzako arauaren aldaketa

Antsoaingo Udalak, 2002ko maiatzaren 29ko osoko bilkuran, behin betikoz onetsi zuen Antsoaingo udal planaren S-D sektoreko hirigintzako arau bereziaren aldaketa.

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, aldaketaren testu osoa ematen da argitara.

Antsoainen, bi mila eta biko abuztuaren hogeita bederatzian. Alkatea, Alfredo García López.

S-D SEKTOREKO HIRIGINTZAKO ARAU BEREZIA

"Kudeaketa" izeneko atalaren idazkera berria.

Sektorea exekuzio unitate bakarra izanen da.

Jarduketa sistema: lankidetzeta.

Birzatiketa proiektua: ezinbestekoa.

Urbanizazio proiektua: ezinbestekoa, hala ere aterako diren lurzatiaren barneko urbanizazio lanak egin beharko dira, lurzatiaren eraikuntza lanekin batera egin ere.

Xehetasun azterlana: sektore osoko bolumenak antolatuko ditu, sestrak zehaztu eta lurzatiak mugatu. Ondoren, xehetasun azterlan bana aurkeztu eta izapidatuko da, aterako den lurzati bakoitzaren barneko bolumena antolatzeko.

Aprobetxamendurako eskubidea eskuratzeko epea: 4 urte.

Eraikuntza lizentzia eskatzeko epea: 4 urte.

Iragarkiaren kodea: A0209487